

Gatz estankoaren matxinada: berrikusi beharreko gaiari buruzko ohar batzuk

(Some notes about a subject to revise: the Salt-Tax Revolt)

Zabala Montoya, Mikel
Bizkaiko Foru Liburutegia. Diputazio kalea, 7. 48008 Bilbao
mikel.zabala.montoya@bizkaia.net

BIBLID [1136-6834 (2012), 38; 67-94]

Jaso: 20.10.2004
Onartu: 21.04.2012

1631 eta 1634 bitarteko Bizkaiko Gatz Estankoaren Matxinada gaizki ezagututako gaia da gaur egun ere eta, horrexegatik, galdera desberdinak sortarazten ditu. Agiriek dauzkaten hutsuneak edota iturrietan behar bezalako egiaztapenik gabe ideia batzuk behin eta berriro errepikatzea aurreko arazoaren erantzuleak dira, besteak beste. Artikulu honetan gertakizun haietako zenbait eremu berrikusten dira: motibazioak, helburuak, estrategiak, etab.

Giltza-Hitzak: Gizarte gatazka. Altxamendua. Bizkaia. XVII. mendea.

La Rebelión del Estanco de la Sal (Bizkaia, 1631/34) es un tema todavía hoy mal conocido y con diversos interrogantes. Las lagunas en la documentación o la repetición de tópicos deficientemente contrastados en las fuentes son algunos de los problemas que han conducido a tal situación. En este artículo se revisan determinados aspectos de ese movimiento: motivaciones, objetivos, estrategias, etc.

Palabras Clave: Conflictividad social. Rebelión. Bizkaia. Siglo XVII.

Aujourd'hui la Revolte de l'estanco du Sel (Biscaye, 1631/1634) est méconnue. Il y a plusieurs questions à répondre encore. Nous pouvons mentionner certaines raisons qui expliquent ce problème: la documentation est incomplète et beaucoup des idées qu'on répète souvent n'ont été pas vérifiées par les sources. Cet article présente l'étude de quelques éléments du mouvement: ses causes, buts, stratégies, etc.

Mots-Clés: Conflit social. Rébellion. Biscaye. XVIIe siècle.

1. SARRERA

Gatz Estankoaren Matxinada oso gai deigarria izan da euskal historiografian noizbait arrazoi desberdinak direla medio. Izan ere, mugimendua talde xumeen artean zabaldu eta errotu da, nonbait. Lehen abiapuntua XIX eta XX. mende bitartean kokatu behar da: garai hartan F. de Sagarmínagak, E.J. Labayruk edota T. Guiardek oso balio handiko agiriak bildu zituzten gaur egun ere gaia ezagutu ahal izateko erabili beharreko idazlanetan¹. Bestalde, XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan izandako susperraldi historiografikoari lotuta, Matxinadari buruzko lanak burutu ziren. Dena dela, ikerketa haiek dagokigun errebolta zeharka baino ez zuten landu, Matxinada testuinguru zabalagoan edota eredu orokorretan barneratu ahal izateko asmoz. A. Otazu edota E. Fernández de Pinedo horren adibideak dira, besteak beste².

Tamalez, ez da orain arte gai honi buruzko monografiarik argitaratu³ eta iturrietan okerreko irakurketak direla kausa sortutako akatsak behin eta berriz errepikatu dira. Orain arte izandako kritika bakarra R. M^a Miezak agertu zuen⁴. Honek Matxinadaren alor antifiskala baino ez antzemateak zekartzan arriskuak salatu zituen. Beraz, Gatz Estankoaren Matxinada, beste herri errebolta batzuk ez bezala⁵, gaizki ezagutzen dugula esan dezakegu, iturriak urriak eta sakabanatuak izategatik eta, batez ere, ikerketa sistematikoak falta ditugulako⁶.

Ondoko orrietan ez da Matxinadari buruzko behin betiko bertsio itxia eskainiko, halako helbururik honelako idazlan baten ahalbideak gaintutiko lituzkeelako. Artikulu honetan aspalditik lantzen hasi naizen ikerketa lerro batzuk zirriboratu besterik ez dut nahi azkeneko urteetan inolako justifikapenik gabe guztiz bazterturik dagoen gaia biziberritzeko asmoz.

2. MOTIBAZIOAK

Gizarte mugimenduei buruzko eztabaida handia egon da⁷. Eskuarki horren gakoa orokortasuna eta berezitasunaren arteko aurkakotasunean datza. Eztabai-

1. F. DE SAGARMÍNAGA (1892, II, 11-30); E.J. LABAYRU (1901, V, 197-244 eta 680-696) edota T. GUIARD (1906, II, 49-158).

2. A. OTAZU Y LLANA (1973, 128-132) eta E. FERNÁNDEZ DE PINEDO (1974, 61-77).

3. R. BARAHONA ARÉVALOK egin zuen ikerketa bakarra (1970), baina lana argitaragabekoa da. Hala ere, aipatu ditudan garaiko beste lanetako arazo ugari bertan azaleratzen dira.

4. R. M^a MIEZA (1991, 41-102).

5. Azken urte hauetan 1766.eko Matxinada eta Zamakoladari buruzko liburuak kaleratu dira – J.M^a IÑURRITEGUI (1996), alde batetik, edota C. RIBECHINI (1996) eta L. GUEZALA (2003), bestetik.

6. Azken urtetako lanak Hispaniako Erregetzaren testuinguru orokorra (J.E. GELABERT, 2000, 48-55 eta 94-119), Gipuzkoako egoera (S. TRUCHUELO GARCÍA, 2004, 183-204) edota alor fiskala (R. PORRES MARIJUAN, 2007) izan dituzte aztergai.

7. Ik. P. ZAGORÍN (1985, I, 66-77), M. PÉREZ LEDESMA (1991, 141-187), edo C. GIL ANDRÉS (1995, 23-33), esate baterako.

da hori, agian, prozesu historikoen jarraikortasuna eta etenaldiaren artekoarekin pareka daiteke, hau da, egokitzapen eta berriztapenaren artekoarekin edota, nahiago bada, baretasun eta disfuntzioaren artekoarekin.

1631 eta 1634 bitarteko gertakizunetako zioak finkatzeak urrun zein hurbileko aurrekari eta geroko gertakizunen arteko zergati eta ondorio moduko loturak onartzera behartzen du. Hau oso gai konplexua da. Aurrekariak eta gertakizunak sarritan batu dira bien arteko loturak behar bezalako azalpenik gabe, hitzez hitz baliotasun mugatua duten kanpoko ereduak besterenganatzeagatik. Izan ere, XVII. mendeko mugimendu zalapartari guztiak antifiskaltzat hartzea sinpleegia da, W. Beikek arrazoi osoz ohartarazten duen bezala⁸.

Lehenik eta behin, epe luzeko eta epe laburreko arrazoiak sailkatu behar dira. Dagokigun gaian, 1632ko Urriko bortizkeria Calderón de la Barcaren zorigaitoko pregoiaren ondoriozkoak izan ziren. Baina honek ez du berez mutin antifiskalaren aurrean gaudenik esan nahi, Estankoaren ezarpena kontraforu nabaria zelako. Gainera, Calderónek salneurria asko eraldatu zuen. Gehiegizko kontribuzioak egon ziren aurrez beste eskualdetan ere, Bilbon bezain estu eta larri bizi zirenetan –portuetan izandako marineletako eskakizunak, adibidez, gogoratu beharra dago– altxamendu orokorrik lehertu ez zela.

Aurreko ereduak, hala edo nola, beste toki batzuetan ere egiazta daiteke. Lekeitioko gertakizunak erreparatuz gero, bertako elementu bateratzaileak (etorkin baten auzotasunak, alegia) foruzaletasunarekin zerikusia zuen, eta lotuta zegoen, gainera, aurrez Alonso Enríquezek burututako zerga-bilketarekin.

Jarraian erruduntzat hartutako zerga-biltzaileen kontrako erasoak biderkatu ziren. Gatz Estankoaren arduradunen aurka jo zuten, baina baita Kontrabandoaren Ikuskaritza edota Oihalen gaineko Zergaren erantzuleen kontra ere. Mutinak halako bidea hartu ahal izan zuen Calderónen portaera defendatzen Bilboko Erregimentuak eragindako bidegabekeria aprobeztatzeko asmoz Hiribilduko merkataritzan jardun izandako hainbat lagunek, alde batetik, eta Konkordian irabazle ateratako Bilboko talde zuzentzaileari aurre egin nahian zebilen Jaureriko Aldundiak, bestetik, izandako jarrerari esker. Gainera, erreboltariak era guztieta-ko baliabideak erabili zituzten euren helburuak lortzen saiatzeko. Izan ere, Aldundiko kargudun zalapartariak eskuarki diskrezioz aritu arren, Erregearen agiriak erre zitezen emandako agindua, berez, *lesae maiestatis* motatako delitua zen. Erreboltariak jarraitutako jardunbide bakoitza aurrez oso kontu handiz antolatuta egon zen, nik uste.

Epe luzeko ikuspuntutik bestelako arrazoiak antzeman daitezke. Jauntxokorien aurkakotasuna ez dago bazterterik. Handiki batzuen ikurren kontrako erasok –Pedro de Villelaren hilobiaren aurkakoak, esate baterako– edota Antonio de

8. W. BEIK (1997, 253).

Landaverderi Idoibalzagako patronatua uzteko ultimatumak⁹ hala adierazten dute.

Jauntxokerien aurkako erresistentzia oligarkiaren kontrakoarengandik ezberdindu beharra dago. Izan ere, lehenbizikoa handikiek nagusitasun nabaria agertzen zuteneko nekazal inguruetan azaltzen zen. Bigarrena, berriz, Hiribilduei zegokien, bertako mugikortasunak partaidetza politikoa aldarrikatzen zuten taldeak gorpuzteara errazten zuelako. Nire iritziz, *stricto sensu*, ez dago Gatz Estankoaren Matxinada jauntxokeriaren aurkako mugimendutzat hartzerik, dagokigun lurraldean oso hedapen urriko egitura izateagatik¹⁰. Bestalde, ez zen jauntxokeriaren kontrako ekimen handiegirik izan. Erregetzak patronatu laikoaren aurka burututako eraso garaikidearen aurrean¹¹ tokian tokiko giza taldeek erakutsitako pasibotasunak ere beste horrenbeste adierazten du. Edozelan ere, jauntxokeria eta oligarkiaren kontrakotasuna bat eginik egon zitezkeen, nonbait, euren etekinen alde foruzaletasuna zapaldu zuten handikien kontra zuzendutako erasoetan.

Hiribilduetako kasuetan aipatutako bi elementuen arteko lotura hori nabaria goa da. Bilboko talde xumeek Erregimentutik kanpo gelditzeagatik ez omen zeukaten zertaz kezkatzerik, kargu guzti haiek urrunegiak gelditzen zitzaizkielako edo. Gainera, udal kargurik bete ahal izateko asmorik zeukaten ertaineko giza taldeek onuragarritzat jo zezaketen Konkordia, 1630.eko akordioak goi mailako merkatariei erakunde berrietako ateak irekitzen zizkienez gero, aurrerantzean Erregimentuko kontrola arin zitekeelako ustetan¹². Esanak esan, gorrotoa abitu militarrek eta Gaztelan goi mailako lanbideak betetzen zituzten goratu berrien kontra bideratu omen zen, eurek alde aurreko goi mailako taldea handitu zutelako¹³.

Habsburgeko etxeak foruzaletasuna begirunez jo zuela adierazi dute batzuk, Borboikoen ustezko jarrera zentralistarengandik bereizteko¹⁴. Orokorrean egiazko baieztapena da, baina nabartu beharrekoa, XVI eta XVII. mendeetan Habsburgekoek betetako gehiegikeri batzuk ahazterik ez dagoelako. 1590 eta 1592 bitartean, esate baterako, Felipe II.ak Aragoiko foruzaletasunaren kontra jo zuen Antonio Pérez zorigaiztoko kontseilaria harrapatu ahal izateko. Erregea garaile

9. Aurrez ere halako tirabirak egon ziren. 1594. urtean, adibidez, San Juan de Munitzi familia-ko zuziak apurtu zizkioten Mundakako Andre Mariako elizan. VEKA, BE, 1318 ps, 18. znbk. eta atal bereko 1342 ps, 2. znbk.

10. Momentuz Jaureritik kanpo gelditzen zen Orozkoren kasuan edota, nabardura ugari xehaztuz gero, Enkarterrietako eskualde batzutan soilik erabili liteke.

11. Prozesu hau jarraitzeko, ik. A. LARREA BEOVIDE (1993, 118-138).

12. Alkatea eta Ahaldun Nagusia ez ziren bateragarriak izaten, Alkatetzari muzin egin behar zitzaiola.

13. Berdintasun ekonomikoaren aldarrikapen muturrekoenak goi mailako talde bilbotarren kontra bideratu ziren. Eskakizunak oinarri foralik ere bazuen, baina idatzizko eskaeretan ia ez zuen oihartzunik izan.

14. Cf. R. GÓMEZ RIVEROK (1982, 4) edota F. ZABALAK (1985, 225-227), besteak beste.

atera zen estualdi hartatik, Aragoiko goi mailako taldearen zatiketari esker edo, eta paktuaren inguruko doktrina behin betiko menperatu zuen¹⁵. Katalunian 1640.eko gertakizunak aurreko urteetan areagotutako Printzerri eta Koroaren arteko mesfidantzaren emaitza izan zen¹⁶. Aipatutako bi mugimenduetan errebol-tariaren arteko zatiketak porrota erakarri zien¹⁷. Dagokigun kasuan ere antzeko zer-bait gertatu zen, nire iritziz.

Jaurerriko erakundeetako *statu quo* delako berria zen Konkordiari aurre egi-teko asmoz defendatzaile eta aurkarien elkarren kontrako berehalako tira-birak piztu ziren. Horren adierazpidea 1632. urteko Aldundiko hauteskundeetan dugu; bertan aurkakoak garaile atera ziren eta, gainera, kargurik gorenak eskuratu zituzten.

Aldundian bezala Bilboko erakundeetan ere liskarrak zeuden, baina bertako protagonistak merkataria eta ogibide liberalak ziren, aurrez aurre¹⁸. Azken talde honetako kide batzuk jasan zuten bazterketak eta desberdintasun profesionalek eragindako barne aurkakotasunak oso prestakuntza handiko giza taldea erakarri zieten errebol-tariei. Multzo honek oso estrategia koherentea antolatzeaz gain, garrantzi handiko unetan zuzendaritza bere gain hartu zuen. Kasu honetan hasie-rako egoera aurrekoaren kontrakoa zen, baina eragindako ondorioak, berriz, ber-berak izan ziren. Bestela esanda: jauntxoek merkatarien integrazio legalaren bidez talde zuzentzailea handitzearen aurrean erakutsitako errefusapenaren ondorioz parte hartu zuten mugimenduan; ogibide liberalek, berriz, Bilboko era-kundeetan jasandako bazterketagatik. Edozelan ere, guztiek azken urteetan kar-gu publikoetako banaketetan kaltegarritzat hartzen zituzten aldaketen kontra azaldu ziren.

Aztergai ditudan ezuste haiek finkatzen hasten zen Aro Berriko Bizkaiko giza talde desberdinen arteko homogeneousasun falta adierazten dute, nik uste. Estualdi handietan batzuk eta besteen arteko elkartasuna bertan behera gelditu zen. Hala ere, herri xumearen barne zatiketa amaieran baino ez zen ageri, baina goi mailako taldeen arteko ezadostasunak hasieratik bukaeraraino antzeman daitezke. Aldez aurretik, talde zuzentzaile horren famili estrategiak handiki eta merkatarien arteko desberdintasunak murrizten joan ziren. Dena dela, egoera berri hura guztiek ez zuten mesedegarritzat hartzen eta batzuk legaltasuna berri-tu nahi baldin zuten, egunean jarri ahal izateko, besteek ohiko nagusitasuna arriskuan ikusten zuten. Batasuna erabateko adostasunez ez zela onartu begien bistan da. Eragile batzuk kontutan hartu behar ditugu jarrera hau ulertzeko: kan-potarren gorakada, abizen batzuen atzerapena eta besteen aurrerapena, edota kide berriak sartzeagatik talde zuzentzailea handitzean sortutako erreakzioa, bes-

15. G. COLAS LATORRE ETA J.A. SALAS AUSENS (1982, 577-583).

16. Cf. J.H. ELLIOTT (1977).

17. Portugalen, berriz, goi mailako taldeen batasunak arrakasta gauzatu zuen.

18. Hala ere, Aldundian ez bezala, errebol-tariak ez zuten sekula Alkatetza, Bilboko kargurik nagusia zena, eskuratu ahal izan. Ezintasun honek jardunbideak mugatzeaz gain, iskanbilak larria-gotu zituen. Hori dela eta, errebol-taren gertakizun ikusgarrienetako erdigunea Bilbo izan zen.

teak beste. Azken hau motibaziorik nagusia izan zitekeen, nonbait, baina talde zuzentzailea handitzea apropos hartutako neurria izan zela –XVII. mendeko krisialdiari aurre egiteko asmoz– ez dugu ahaztu behar. Ikuspuntu honetatik zatiketa, testuinguru berri hartan, aipatutako taldeak izandako kontraesanen emaitza izan zen. Edo, nahiago izanez gero, berrikuntza sozial eta kulturaleri egokitzeko nahitaezko katarsia.

Talde zuzentzaileak pairatu zuen zatiketa Hiribildu eta nekazal eremuen antolakuntzari buruzko ikuspuntu desberdinen ondorioztat har dezakegu. Aurrekoak talde zuzentzailearen kide batzuk baztertutako bilbotarrekin eta menpeko taldeekin bat egitera bultzatu omen zituen. Talde guzti horien arteko akordioak, azken batez, ezohizko estualdira bideratu zuen¹⁹.

3. PARTAIDEAK

Ezaguna denez, Antzinako Erregimeneko erreboltetan maila desberdinetako kideak batzea arrunta zen oso. Aztergai dudan kasuan motibazio pertsonalik ez da baztertzekoa izan noizbait altxamenduan zehar jarreraren bat ulertu ahal izateko. Hala ere, mugimendua askoz logika handiagokoa da. Hona hemen inplikaturako giza talde nagusienak:

3.1. Nekazal Jauntxoak

Konkordiak gorpuztu zuen *statu quo* delako berriak handiki batzuen erreakzioaren eragilea izan zen. Hauen artean 1632.ean hasitako agintaldian bete zituzten eginkizun konplexuengatik Gobernuko bi Ahaldu Nagusiak nabarmendu ziren. Nire ustez, beste hainbat jauntxo ere haien jarrerarekin guztiz bat etorri ziren, nahiz eta horren partaidetza zuzenik ez izan.

Gonzalo de Ugarte Zaldibar Mallea Ahaldu Nagusia Gonzalo Ibáñez de Ugarte eta Francisca de Mallearen semea zen²⁰. Honek ondorengoarentzako maiorzkoa sortua zuen. Ugarte Ermua edota Xemeingo auzokidea izateaz gain, neurri batez Ana María de Zaldibarrekiko ezkontzari esker, abizenei lotutako oinetxeetako titularra ere bazen²¹. Bere ondasunen artean Xemeinen eta Ermuan kokatutako Zaldibar, Ugarte eta Lobianoko jauregiak; Xemein, Zaldibar eta Mendatako

19. Inplikaturako talde bakoitzak, bere kabuz, eragindako erresistentziatzako aurrekariak, hain ondorio larririk inoiz ez zutenek, hala adierazten dute, nire iritziz.

20. BEAH, Markinako Andre Maria Mesedetakoa (53015), 1578 eta 1632 bitarteko bataioetako liburua (1581.X.8).

21. Noizbait bere burua errentaduntzat aurkeztu zuen. Nagusitasuna zela medio Ermuko Santiagoren elizan izandako norgehiagoka armatuaren ondorioz bere aurka izandako auzian zera aitortu zuen: “que no tiene ofiçio ninguno sino bibir con su renta e mayorazgo”. VEKA, BE, 1421 ps, 12. znbk.

hamarrenak; hainbat burdinola (Olaerreaga eta Eizaga); Markinako Probestuaren kargua; edota aipatutako Merinaldeko aginte-makila aipa daitezke²².

Zenarruzakoa izanik, Lekeitio ere auzatutako Diego de Iruixa, beste Ahdun Nagusia, izen/abizen bereko aita eta Teresa Saenz de Muniberen semea dugu, Angela de Aldape esposatu zuena. Iruixak gurasoengandik ondare multzo handia jaso zuen, urtero 852 dukata produzitzen zuten 17.140 dukatetako balioko laurogeita hamar zentsu inguru barne²³. Hona hemen menpetasun ekonomikozko lokarri batzuk:

1. Taula. Jaurreriko erakundeetan partaidetzarik izandako Diego de Iruixaren zordunek

Zorduna	Auzotasuna	Zorra	Data	Partaidetza
Olaeta, Pedro Ortiz	Ajangiz eta Arratzu	1.400	-	ER 1593 AN 1613
Albiz, Iñigo Ruiz	Ajangiz eta Arratzu	400	1612	ER 1634
Uriarte, Martín Ruiz	Gernika	300	-	BO 1621
Aldecoa, Martín	Amoroto eta Nabarriz	100	1608	BO 1602 BO 1612 BO 1623
Arana, Martín	Lekeitio, Nabarriz eta Gizaburuaga	14	1605	BO 1609 BO 1615 BO 1618
Olabe, Domingo	Bedaroa eta Ipazter	50	1604	BO 1631
Puerto, Clemente López	Lekeitio eta Mendexa	50	1604	BO 1635
Arana, Juan Pérez	Ipazter	100	1610	BO 1606
Aurrecoechea, San Juan	Ipazter eta Mendexa	100	1617	BO 1621
Iturrioz, Sancho Martínez	Murelaga	300	1617	DZ 1593
Careaga, Martín Martínez	Xemein	500	1621	ER 1632

Legenda: AN: Ahdun Nagusi, ER: Erregidore, DZ: Diruzain, BO: Batzar Nagusietarako ordezkari
Oharrak: Diru kopuru guztiak dukatetan agertzen dira. Goi mailako kideen artean auzotasun anitza arrunta zen oso.

Iturria: BFAA, AJ, Korr., 442 ps, 8. znbk.

22. PKA, 4. Ale, 31. znbk. eta, artxibo bereko 86. Ale, 2113. eta 2115. znbk.

23. Errentadun izaera ez omen zen erabatekoa izan. Merkatal jardueretan ere parte hartu omen zuen, *La Magdalena* izeneko itsasontziaren partaide modura, nahiz eta Ingalaterrako armadarako prestakuntzak zirela kausa-ontzia bahitua izan, geroago San Miguel uhartean galdu zela.

Menpetasun ekonomikozko lokarriek Iruxtaren oinarri materialen kokagunea, Ekialdeko Bizkaian kokatzen zena, zirriborratzen dute. 1632.eko Aldundiko hauteskundeetan Martínez de Careaga hautesleak proposatu zituen hautagai guztiak aukeratu izanak harreman ekonomiko eta interes politikoen arteko zuzeneko lotura azaleratzen du, nonbait. 1613 eta 1616 bitarteko agintaldian ere antzeko zerbait antzeman daiteke, garai hartan Pedro Ortiz de Olaeta eta Gonzalo de Ugarte, biak batera, Ahaldun Nagusi izan zirela, erakunde mailako integrazioaren kontrako jardunbide batzuk biziberritu ziren. Ahaidetasunak talde batean edo bestean barneratzea baldintzatu omen zuen, Pedroren hurbilekoa zen Juan Ortiz de Olaetak, ustez, adierazten duen bezala²⁴.

Lope de Aulestiaren oinarri ekonomiko eta familiarrak zehaztea, zoritxarrez, ez da momentuz posible. 1631. urtean Alkatetza bete zuen Gernikako auzokidea izanik; Josefa de Busturiarekin ezkondu zen; eta amaren izen bereko alaba Juan Antonio Mendoza de Arteagarekin esposatu zen²⁵. Aurrekoak eta bere ohorezko izendapenak berak errentaduna zela pentsatzera naramate, gainerako egiaztapenak oso urrikoak direla²⁶.

Aurreko azalpenak kontraesankorra eman dezake, ustez nekazal jauntxoak ziren hiru lagunetako bat ere ez omen zelako normalean Lur Lauan bizi. Hala ere, euren interes ekonomikoak gehienbat nekazal eremuei atxiki zitzaizkien, sailkapenaren artifizialtasuna alde batera utzita.

3.2. Hiribilduetako merkatariak

Altxamenduan zehar argitasunez oso gutxitan agertu ziren. Beste merkatari batzuk erasoetako biktimak zirenez gero, salerosle zalapartariak partaidetza ikusgarria ekiditen saiatu ziren. Izan ere, lekuko askok ez zuten De la Puente anaien inplikazioaren berririk izan –Juanek parte hartutako ekintzetan bere burua estali omen zuen. Jakina, Erregimentu eta Kotsuletxearen kontrola zela kausa, fakzio desberdinen elkarren kontrako tira-birek talde osoaren batasuna bertan behera utzi zuten.

Lope de la Puente eta María de Urtusaustegui gordexolarren semea zen Juan Bilbon finkatu zen. Bertan merkatal jarduerari ekin zion, besteak beste²⁷ bere jatorri bereko burdina salerosten²⁸. Juan de la Puente María García de Zancoeta-

24. MAHN, DK, 43254 ps.

25. BFA, AJ, Korr., 621 ps, 36. znbk.

26. María Martínez de Barraondo amamarengandik jarauntsitako 150 dukatetako zentsuaren errenta jasotzen zuen. BFA, NA, GP, 340. K (1629.III.14).

27. Oihalak edota ontziak ere izan zituen. BAHF, NA, Esk. Diego de Zamudio (Bilbo), 4021 ps (1602.VI.28) eta atal bereko Esk. Sancho de Zurbano (Bilbo), 4328 ps (1630.III.11).

28. Izan ere, 1621.ean Gordexolako ezkongabea zen Margarita de Villamontek salatutako borxaketan inplikatur agertu zen. Urte hartan gurasoei ehun dukat eta hamar kintal burdinetako kalteordaina eman zien neskaren ohorea zela medio. VEKA, BE, 760 ps, 6. znbk.

rekin ezkondu zen eta honek 1.600 dukatetako dotea jaso zuen. Hasiera batetan Dendari-kaleko maizterra izan zela, geroago Barrenkale Barrena kaleko Francisco de Salazar eta Magdalena de Abendañoren dorretxean bizitzera joan zen²⁹, bainaaldi berean Gordexolan etxalde eta burdinola baten jabea zen. 1631. urteko udal zerga-bilketa batetan 4.138 marai ordaindu zuen, Hiribilduko berrogeita hamar zergadun nagusien artean barneratu zelarik. Dena dela, sekula ez zuen Kontsuletzeko magistraturarik bete ahal izan, bertako kidea izanda ere. Kargudun izateko burututako ahalegin bakarra, 1633. urteko hauteskundeetako, erabateko porrota izan zen, garai hartan zalapartarien indarrak ahul xamar zeuden eta.

Aurrekoaren loba zen Pedro de la Puente noizbait Bilboko eskribautza bat bereganatu eta 1631.ean Hiribilduko Idazkaritza lortu zuen. Aipatutako datatik aurrera Juan de Larrabasterri alokatu zion Eskribautza urteko 70 dukatetako errentan³⁰, baina azken hau zorpetu zen eta ez zuen kitatzerik izan eraila izan arte³¹.

Ezezagunagoa izanik ere, Juan Ochoa de Leusarra merkatari bilbotarra eta Inkisizioko kidea, izen bereko aita oihalgile eta Mari Ramos de Sertucharen semea zena³², talde honetan sar daiteke. Leusarra Dendari-kalean jabea zen, 1631.eko zerga-bilketan 2.068 marai ordaindu zuelarik. Beste hainbat kargudun bilbotarrek garai hartan pagatutakoa horrenbestekoa edota, noizbait, kopuru txikiagokoa izan arren, ez zuten Kontsuletxe edota Bilboko Udalaren karguetan onartu³³. Horrexegatik errebolta lehertu aurretik erakundeetako gehiegikeriei aurre egiteko izandako epaiketetan nabarmendu ziren³⁴.

3.3. Ogibide liberalak

Ogibide liberalak Bilboko Udalan izandako joera baztertzaileren jasotzaile zuzenak izan ziren. Diego de Lezamaren auzia zela kausa, beraz, Bilboko Udala eta Kontsuletzeko karguen arteko bateraezintasunaren defendatzaile sutsuenak eskribau eta abokatuak izan ziren³⁵. Dena dela, Bilbon ez ezik, beste tokitan ere ogibide liberalak asaldaturik zeuden. Fernando de Veléndiz horren adibidea dugu.

29. BAHF, NA, Esk. Diego de Zamudio (Bilbo), 4024 ps (1606.XI.15) eta atal bereko Esk. Gonzalo de Lopategui (Bilbo), 5011 ps (1632.II.14).

30. BAHN, NA, Esk. Gonzalo de Lopategui (Bilbo), 5010 ps (1631.II.23).

31. BAHN, NA, Esk. Martín de Lecubarri (Bilbo), 4937 ps. (1635.II.7).

32. Bikote honen ondorengotzaren artean Juan Bautista de Lecueren emaztea izandako Mari Ermuco de Leusarra gogora ekar daiteke. Senarra 1631.eko udal hauteskundeetan ez zuten hautagai onartu bete beharreko gutxienezko ondasuna ez izatearen aitzakiaz.

33. Azkenik, Hiribilduko Erregidorea izan zen 1650 eta 1653. urteetan. Honek matxinada zapuztu ondoren gizarte maila nagusienetako zalapartariei talde zuzentzailean barneratu ahal izateko aukera eskaini zitzaieela egiaztatzen du, geroago berriz esango den bezala.

34. 1632.ean Kontsuletzeko hauteskundeetan atzerritarren partaidetzaren aurka azaldu zen, hurrengo urtean Bilboko Udala eta Kontsuletxearen arteko bateragarritasunaren kontrako auzian ere izan zela.

35. VEKA, BE, 287 ps., 1. znbk. Kontsuletxeak hauen hogeita hamar kide ingururen lekukotasuna errefusatu zuen.

Aipatutakoa Domingo de Veléndiz eta María San Juan de Mirandaren semea zen. Errege Kontseiluetako abokatua eta Valladolideko Kantzelaritzako legegizona izatera iritsi zen. Veléndiz Luis de Butrón eta Tota de Zolloren alaba zen Mayorra de Butrón y Múxicarekin ezkondu zen. Bermeon bi etxebizitza (haietako bat, Enparantzan, errentetan), Morteruako etxaldea, hainbat orube (ogilandak, mahastiak, fruta-arbolak, etab.), Artigasen errota bi edota zenbait zentsu izan zituela³⁶, nekez pentsa daiteke Veléndiz errentaduna ere ez zenik.

Edozelan ere, lehenbiziko kasu hori alde batera utzita, talde honetan mugimenduko partaide interesgarrietako batzuk daude. Berebiziko interesa fakzio zalapartari desberdinak lotzen erakutsitako gaitasunean datza.

Martín Ochoa de Axorabide, Marcos Ochoa de Axorabide eta Marina de Axpuruaren semea zena, Markinan jaio zen 1585. urtean³⁷. Martínek aitaren bizibidea jarraitu zuen, honengandik Ondarru, Markina eta Busturiako Merinaldeko eskribautzak jasotzen, eskualde bereko zenbait etxalde eta oruberekin batera. Bilboko Dendari-kalean finkatu zen eta 4.000 dukat eraman zuen Marina Ortiz de San Pelayorekin³⁸ ezkontzean. Axorabide Idazkari oinaztarra Gobernu zalapartariaren eragilerik nagusiena izan zen eta Aldundiaren bilkuretan, Bilboko matxi-noen agerraldi publikoetan edota Gipuzkoako batzordean azaldu zen. Hondamenaren bezperan hala edo nolako konponbiderik bilatzeko asmoz Idiáquezekin negoziaketetan ibili zela orain arte egiaztapenik gabeko hipotesia besterik ez da. Edozelan ere, hala izatekotan, ahalegin porrokatua izan zela ez dago zalantzan jartzerik³⁹.

Miguel de Undona Echavarría, abizen bereko jatorrikoa zela, aurrekoaren maila apalagoan kokatu beharra dago. Undona Korrejimenduko Entzutegiko abokatua eta Axorabideren koinatua zen. Bilboko Barrenkale kalean finkatu eta birritan ezkondu zen –bata Sebastiana de Undararekin, bestea, berriz, María de Olarretarekin. 1632. urtean Jaurerriko Diruzaina izatera heldu izanak, Erregidoretzari muzin egin ondoren, gastu orokorrak ordaintzea zela medio Enkarterrietako gatazkarekin zerikusirik omen zeukan. Kargudun hau ere Lur Lau eta menpeko talde bilbotarren arteko loturaren adierazpidea da, 1633.eko Otsaileko Batzar Nagusietan partaidetza handia izan zuelarik. Erregearen agindupean bizigaiak sartzten eten egitean, Bilboko horniketa iraunarazteko asmoz errenta publikoei eusten ahalegin porrokatua burutu zuen Undonak. Edozelan ere, Diruzaina ez

36. MAHN, DK, 43254 ps.

37. BEAH, Markina, Andre Maria Mesedetakoa (53015), 1578 eta 1632 bitarteko bataioetako liburua (1585.IV.15). Senar-emazte honen beste seme-alabarik ez da agertzen erregistroetan.

38. Aurreko urteetan Bilboko Udalan hainbat enfrentamendu izan zuen Francisco Ortiz de Urix-taren alarguna zen. Beste horrenbeste esan dezakegu Ochoa de Urixta aitagarreba oihalgileaz.

39. Aipatutako hipotesia erakargarria da oso, baina aldeko egiaztagiririk ez dut. Honen inguruko iturri bakarra *Relación* delako idazkia izanik, aipatutako agiriaren egileak eskainitako Axorabideren gaineko irudikapenaren sinesgarritasuna zalantzetan jar dezakegu. Izan ere, Idazkariak parte hartutako ekintza guztiak xehetasunez azalerratu zituen justiziak hartutako neurriak onetsi eta heriotza-zigorra justifikatzeko asmoz, inplikaturako beste batzuk izandako erantzukizuna apropos ezkutatu zuen bitartean. Ik. R.M^a MIEZA (1991, 41-102).

zuten 1634.ean epaitu, aurreko erru guztiak alde batera utziz. Eta, berriz ere, balizko iritzi aldaketaren egiaztapenik ez dut. Izatekotan, zigorra gauzatzear zegoela gertatu zen. Baina Undonaren salbapena ulertu ahal izateko lruxtaren kasuan izandako baldintzapen berdinak antzeman daitezke, nik uste⁴⁰.

Bilboko inguruan Cristobal de Morga Errege Kontseiluetako abokatua altxamenduko buruzagi nabarmenena dugu. Izan ere, birritan Idiáquezen aurkaria izan zen Bilboko udal hauteskundeetan. Matxinoen bilerak bere etxean ospatzen ziren sarritan. Morga oso interes handikoa da erdigune zalapartariak lotu zituelako: Mungian erreboltari batzuk inplikaturako hainbat kausatan hartu zuen parte eta Lekeitiora ere joan zen hasiera batetan Nieto de Yarzaren auzia zela kausa. Abokatu hau La Palman bizi izandako Juan Martínez de Morga eta Clara de Sarabiarren seme bakarra zen eta Bilboko San Miguelen finkatu zen, beste hainbat etorri bezala. Morga lehen aldiz Marina Saenz de Lopateguirekin, gaitzetsitako Gonzalo de Lopategui eskribauaren alabarekin, ezkondu zen. Bigarrenean, berriz, Martín de Laveaga Hiribilduetako Idazkari ohiaren arreba zen Ana María de Laveagarekin. Aipaturako ezkontzetan 1.300 eta 1.600 dukatetako doteak jaso zituen, hurrenez hurren; berak, aldiz, 6.000 dukatetatik gorako ondasun kopurua aurkeztu zuen. Bilbon bi etxebizitza zituen –geroago hiru– eta La Palman 1.000 dukatetako balioko beste bat⁴¹. Aurreko datuak interpretatzea ez da batere konutu errazik. Gorrotoa eta mendekua ase nahian gaur egun ezezagunak ditugun arrazoiengatik Bilboko talde zuzentzailean sartzetik izan ez zuen gizabanakoaren erreakzioa izan ote zen? Baliteke. Morgak ez zuen inoiz Bilboko erakundeetan kargurik bete ahal izan, bere aitagarreba ez bezala. Eta sartzeko irrikan egon zen. Edozelan ere, Morgaren gaitasun ekonomikoak estualdiren bat izan omen zuen azkeneko urtetan, zorrak zirela medio⁴².

Martín de Araucori ere lepora diezaiokegu, hala edo nola, Morgari buruz esandakoa. Errege Armada eta Fabriketako Eskribau honek Aldundiko Erregidoretzak bete zituen 1609 eta 1615.ean. Eta 1632.ean Sindikatura betetzeko hautagaia ere izan zen –halako hartan zorigaitzoko Mendiolak bereganatu zuen kargua. Azken data horretan Idazkaritza lortu zuen Bilboko Udalan. Urte hartako Urriko gorabeheretan eta hurrengo Otsaileko Batzar Nagusietan parte hartu izanak aurrez esandakoa berresten du. Arauco erandiotarra Bilboko Harategi Zaharrean bizitzera joan eta María Ochoa de Urasandirekin ezkondu zen. 1634.ean heriotza-zigorra iragarri bazioten ere, Araucok bizitza ez ezik, ondarea ere salbatu ahal izan zuen, bere ondorengotzak eskuratutako herentziaren arabera –ortzi baserri Leioan eta Erandion,azienda, 2.500 dukatetako zentsuak edota beste 400 ostilamendutan baneratzten zuena⁴³.

40. Hala ere, handik gutxira, 1637.eko Irailak 14an, epaiketaren zain zegoen Iñigo de Oruetak emandako labankadaren ondorioz hil zen. Undonak hogeita hamar urte inguru besterik ez zuen. VEKA, BE, 1021 ps, 8. znbk eta BFA, BA, Liburu Historikoak, 7. znbk.

41. Ezkontza-hitzarmenak 1624.eko Maiatzak 4an eta 1627.eko Urriak 9an sinatu ziren. Morgaren liburutegiari berrehun dukatetako balioa eman zioten.

42. VEKA, BE, 1168 ps, 2. znbk.

43. BFA, AJ, Korr.: 238 ps, 8. znbk.

Azkenik, Juan de Amunuri Larrabaster ere aipatu nahi dut. Bilbon finkatutako Ochoa de Amunuri eta Magdalena de Amézagaren⁴⁴ ondorengoak gurasoen ogi-bidea –zizak alokatzea, hain zuzen⁴⁵– jarraitu zuen. Larrabaster Domingo de Madariagaren alarguna zen María San Juan de Jaureguirekin ezkondu zen. Ezkontide bakoitzaren ondare multzoa zenbatekoa zen ez dakit, baina euren gaitasun ekonomikoa zirriboratzeko beste datu batzuk lagungarriak izan daitezke. Bilboko Dendari-Kalean finkatu zela, bertan bi etxebizitzaren jabea zen eta ondo hirugarren bat Juan Ochoa de Leusarrari saldu zion⁴⁶. Aldi berean, Hiribilduko Enparantzan errentatan beste etxebizitza bat zeukan⁴⁷ eta idien larruak saleros-ten zituen⁴⁸. Larrabasterrek alde aurreko beste bi lagunek baino maila sozial apalago erakutsi zuen. Adierazpide batzuk horren lekuko ditugu: aipatutako jar-duera ekonomikoa, 1631.eko udal zerga-bilketan pagatu zuen 992 maraitako ordainketa edota ohorezko kargurik sekula bete ez izana, besteak beste⁴⁹. *Relación* delako idazkiaren arabera, errebolto buruzagiekin batera azaldu zen maiz. Hala ere, herri xumearen ordezkaria izan omen zen, ustez idatzitako paskin guztietan euren zuzentzen zitzairen eta.

3.4. Elizgizonak

Lehenik era behin, abituz jantzitako pertsona guztien artean oso interes desberdinak –ia aurkakoak– zirela esan beharra dago. Izan ere, erlijioso-institutuak eta Hiribilduetako Kapituluak (edota euren hierarkiak, gutxienez) argi eta garbi ordenaren alde agertu ziren sarritan. Batzuetan bortizkeria bertan behera uztea eskatzen zuten prozesio eta agerraldi publikoetan; bestetan erasotakoak abituen laguntzaz fisikoki babestu zituzten; noizbait ere altxatutakoen aurkako prediku gogorak egin zituzten. Klero sekularreko bizi-maila apalagoko beste kide batzuk, berriz, herri xumearen beharren aurreko jarrera ausartagoak erakutsi zituzten. Are gehiago: elizgizon batek ez zuen Erregearen barkamenik jaso.

Domingo de Armona Batxilerra matxinadako oso gertakizun adierazgarrietan nabarmendu zen. Bartolomé de Armona eta María Ochoa de Arespachagaren

44. Gamizen kokatutako Larrabaster sortetxeko oinekoak. Juanek eskuarki oinetxea aitaren abizenaren aurretik erabiltzen zuen. Arbasoak ezagutzeko, ik. VEKA, BE, 952 ps, 1. znbk.

45. Aurreko oharrean aipatutako agiria –VEKA, BE, 967 ps, 4. znbk. ere gai berberari buruzko espedientea da– 1618.ean pipa bat ardori zegokion ziza ez ordaintzeagatik izandako salaketa da. 1606. urtetik, gutxienez, Bilboko udal errentetan, ardo edota saskietako enkanteetan, esate baterako, agertu zen.

46. BFA, AJ, Korr.: 2614 ps, 19. znbk. (1630.I.7).

47. BAHF, NA, Esk. Martín Arauco de Uransandi (Bilbo), 2554 ps. (1632.IX.16).

48. Salmenta Bermeon egitekoa zen, geroago Donostiara eramateko. 1628.eko txanponaren doilortzea zela medio Bilboko Udalaren ustezko sarkeriak galerak erakarri zizkion, baina salaketa Kartzelaritzan epaitu ondoren, 3.267 errealetako kalte-ordainak jaso zituen. VEKA, BES, 4. K eta BFA, UA, Bilbo, Udala Akta Liburuak, 55. znbk. (1631).

49. Urkamendian eraila izanak beste horrenbeste adierazten du. Morga, De la Puente eta Axorabide, berriz, garrotez erail zituzten.

semea zena Abandoko Nobian bizi zen, Elizate horretako San Bizente elizako apaiza zela⁵⁰. Armona erakargarritasun handikoa omen zen⁵¹ eta, ustez, altxamenduan parte hartzeko deialdi sutsuak egiteaz gain, 1633.eko Otsaileko Batzar Nagusiak hasi aurreko kanpaina burutu zuen, nonbait. Aipatutako Batzar Nagusietan ere partaidetza handia izan omen zuen. Zergatik ote? San Bizente elizaren hamarren oparo eta berak jasotzen zuenaren arteko tartekak edota, orokorrean, Hiribilduan lan egiten zuten menpeko talde apalenen bizilekua zen Abandoko Elizate eta merkatarir dirudunen kokagunea zen Bilboren artekoak piztu ziezaioketen amorrua, bestelako motibaziorik baztertu gabe (Batxiler honi buruzko oso informazio murrizta daukat eta). 1629. urtean San Bizente elizako patronatua beste-enganatu zuten 308.000 errealetan Basurto Acha maiorazkora lokarri zela. Maiorazkoaren ondorengotza-eskubidea María de Basurtori zegokion Aparicio de Uribe Idazkariarekin ezkondu zenetik⁵².

Aurreko kasuan bezala, beste hainbat elizgizonek izandako papera ulertzeko ez dira kausa pertsonalak alboratu behar, baina halako arrazoiak ez ziren baka-rrak izan.

Pedro Ruiz de Ateca mungiarra Gaspar de Ateca eta Luisa Landaren semea zen⁵³. 1600. urtean Mungiako Erregimentuak, Pedro de Villela aita-semeak bertako lehenbiziko bi Alkateak zirela, San Pedro elizako apaizgoa betetzeko aukeratu zuen⁵⁴. Ondorengo urteetan Villela familiak Atecarri egindako mesedeak errepikatu ziren eta urtero 20 dukatetakoa zen Juan de Villelaren fundazioko titularra izendatu zuten. Baina, ezagutzen ez ditudan arrazoiengatik, Pedro de Villelak sorkuntzatik kanporatu zuen 1632.eko Abuztuak 1ean. Kanporaketa lau urtez luzatu zen. Atecak hel egin zuen, bazterketa bidegabekoa zela argudiatuz (bere esanetan ahoz jakinarazi zioten) eta, azkenik, nagusitu zen⁵⁵. Ateca 1639.eko amaieran hil zen Mungian, testamentua sinatu ondoren⁵⁶.

50. Elizgizon honen gaitasun ekonomikoa ez dut xehetasunez ezagutzen. 1633.ean Bilboko Barrenkale Kalean gurasoengandik jasotako etxebizitzaren jabea zela esan dezaket. 1644.ean Armonak etxebizitza hori alokatuta zeukan 700 errealetako urteko errentatan. BAHF, NA, Esk. Joaquín de Isasi (Bilbo), 5528 ps (1644.XI.24).

51. Gaitasun hori 1634.eko hondamena gauzatu ondoren mantendu omen zuen. Izan ere, 1649.ean Bilboko Udalaren aurkako auzia bideratu zuen Abandoko auzokideen izenean itsasadarra zeharkatzeko erabiltzen zen itsasontzia Areatzan mantent zedin. BFA, AJ, Korr., 3397 ps, 1. znbk. (1649.VIII.31).

52. BFA, BA, Villarías, 36. L, 5. Erreg., 18. znbk. eta –atal bereko– 40. L, 9. Erreg., 2. znbk. eta A. LARREA BEOVIDE (1993, 135). Uribe Idazkariaren heriotza-agiria deigarria da oso. Bertan Begoñako Andre Marian 2.000 dukatetako bi sorkunde aipatzen dira, jarraian “y a esta iglesia nada, teniendo 200.000 ducados” gehitzen dela. BEAH, Abando, San Bizente (31001), 1618 eta 1660 bitarteko hildakoen liburua (1634.I.20).

53. Gurasoen maila soziala ezezaguna dut, baina beste seme bat, Gaspar, eskribautzan aritu zen eta Isabel de Gondra Villelarekin ezkondu zen. Bikote honek hiru etxebizitza eta hogeita hamarren bat lur-sailaz osatutako ondare multzoa lokariztatu zuen Ursula alabaren ezkontzan.

54. BFA, NA, GP, 285. K. (1600.III.25).

55. BFA, NA, GP, 260. K. (1636.XI.19).

56. Bertanazienda eta 516,2 dukatetako maileguaz osatutako ondarea ageri zuen. Bere oroi-menean mila meza inguru utzi zuen. BFA, NA, GP, 260. K. (1639.IX.10).

Mungiako Achurin bizi zen Juan de Bengoari buruz informazio urriago daukat. Dena dela, elizgizon hau ere beste fundazio baten jasotzailea izan zen, kasu honetan Martín de Landecho Doktoarena, eta –berriz ere– gaia auzitegietan bukatu zen, aurreko jasotzailea izandako Juan de Landechok, Bengoaren osaba zenak, hartutako zorrak zirela kausa⁵⁷.

Odolezko loturak ere garrantzi handiko eragilea izan omen ziren. Pedro de Aulestia Nabarnizeko Andre Maria elizako apaiza Lope Sindikoaren anaia zen.

Ekialdeko Bizkaian motibazio ekonomikoek bultzatutako aurkakotasunen beste adibideren bat azalera daiteke. Miguel Abad de Uribek Lekeitioko Andre Maria elizako Kapituluak –Nieto de Yarza barne zela– izendatutako Bedaroako San Pedro elizako apezgoa errefusatu zuen 1631.ean, bertako etekina urria izateagatik⁵⁸.

Bermeo eta Mundaka inguruan, zalapartariak eragin handia izan zuteneko eskualdean, beste partaide bat gehiago ere aipa daiteke. Juan de Arechetari buruzko oso informazio gutxi ezagutu arren, Andre Maria eta Santa Eufemian elizgizona izateaz gain, Inkisizioko kidea ere izan zela esan dezaket.

3.5. Menpeko taldeak

Talde desberdinez osatutako multzo honetan gaitasun ekonomiko eskasa da ezaugarri bateratzaile bakarra. Herri xumea krisialdi ekonomiko eta zergetako gorakadaren biktima nagusia izan zen. *Relación* delako agiriaren egileak berdintasunaren aldeko aldarrikapenak zabaldu zituzten talde profesionalak zerrendatu zituen: “herradores, herreros, barquineros, amarradores, çurradores, çapateros, sastres, varveros”. Agiri horretan ahalmen ekonomiko baxueneko talde profesionalak aipatzen dira erabateko xehetasun osoz, beste askotan bezala⁵⁹.

Juan eta Domingo Vizcayganas anai arotzak talde hauen kide apalenetakoak ditugu. Bilboko Barrenkale Barrena kalean maizterrak ziren errigoitiar hauek etengabeko ezegonkortasunean bizi ziren, edozein estualdik miseria erakar zitezakeela. Honako datu hauek jasandako eskasiaren adierazpideak dira: 1630.ean 400 errealetan mandoa erosi eta epeka ordaindu behar izan zuten⁶⁰; bi urte geroago Domingoren testamentuak lanabesak baino ez zituen agertzen⁶¹.

Diego de Charta jostuna aurrekoak baino egoera zertxobait erosoagoan bizi omen zen, 1631.eko zerga-bilketaren datuen arabera. Chartak Bakioko arbaso-

57. Gatazka Marín Bisitariak auziperatu omen zuen. BFA, NA, GP, 260. K. (1637.VII.15).

58. BEAH, Lekeitio Andre Maria (53001), 1613 eta 1683 bitarteko kapituluaren aktak.

59. Gai hau lehenago landu nuen: M. ZABALA MONTOYA (2003 a).

60. BAHF, NA, Esk. Martín Fernández del Campo (Bilbo), 3592 ps (1630.VI.3).

61. BAHF, NA, Esk. Martín Arauco de Urasandi (Bilbo), 2554 ps (1632.IV.29).

ak zituen eta Bilboko Somera kalean maizterra zen. Maisu honek gutxienez ikastun bat zeukan 1633.ean⁶².

1633.eko Otsaileko Batzar Nagusietako desakatuan parte hartu zuten San Pedro Kofradiako marinel bermeotarren izen/abizen batzuk besterik ez dakizkit: Francisco de Barandica⁶³, Martín de Escoiquiz⁶⁴, San Juan de Albiz⁶⁵, Juan de Barandica edota Martín de Elanchove⁶⁶. Baina gehienak Kofradiako maiordomok izatera heldu izana deigarria da, nik uste. Escoiquizek 1614, 1620 eta 1632.ean bete zuen, matxinada bukatu eta gero, 1642.ean, karguari eusteko berriz ere; Juan de Barandicak 1620.ean hartu zuen eta, azkenik, Franciscok 1638.ean errepikatu zuen⁶⁷.

Laburbilduta: mugimenduan esku hartutako giza taldeen azterketak 1640.eko Kataluniako ereduarekin zuzeneko parekotasuna onestera narama. Bertan altxamenduko eginkizunik nagusiena hiritartutako nekazal jauntxo eta hirietako oligarkiaren arteko batuketatik sortutako giza taldeak bete zuen, legegizon eta abokatuek ere partaidetza handia izan zutela⁶⁸.

4. HELBURUAK

Matxinadako protagonisten gizarte maila aztertu eta gero zalapartarien helburuak ezagutu ahal izateko aukera dago. Jakina, altxamenduaren izaera ezkutatzeke asmoz helburuak arerioek isilarazi edota desitxuratu zituztela ez dugu ahaztu behar. Izan ere, etsaien bertsioen arabera, mugimendua garaiko ordenaren aurkako erabateko iraultza zen, nahiz eta halakorik sekula azaldu ez, ezagutzen ditugun 1632.eko Urrian eta 1633.eko Otsailean matxinoek idatzitako eskakizunen esanetara.

Relación delako agiriaren egileak, maltzurkeriaz, matxinadak ustez zekarren ordenaren aurkako mehatxua 1526.ean ezarritako kaparetasun orokorrari esker lortutako berdintasun juridikoarekin lotu zuen, arau hori alor ekonomikoan ere

62. Aipatutako ikaslea ogibiderako trebatzeaz gain, irakurtzen eta idazten ere irakasteko beharra hartu zuen. BAHF, NA, Sancho Ortiz de Artunduaga (Bilbo), 4057 ps (1633.VII.16).

63. Maiordomo gazte modura aurkeztuta, nonbait.

64. Iskanbilarik larrienak marinel honi leporatu zizkieten, bere altueragatik besteengandik nabarmentzen omen zelako.

65. Dirudienek, lehenbiziko hirurak taldeko nagusienak ziren. Lehena Kofradian betetzen zuen karguagatik; beste biak, berriz, Veléndizek deitu zituen Mendiola Doktoarearen etxebizitzaren kontrako erasoan izan zela amorrua bare zezaten.

66. Azken hau izan ezik, beste guztiak alfabetatuak ziren (euren aitortzak sinatu zituzten eta). Edozelan ere, bostak bueltan ziren Bermeon 1635.ean, aurreko urtean handik ospa egin behar izan zuten eta. MAHN, DK, 43254 ps.

67. Aipatutakoak ez dira datu osoak izan behar, J.I. ERKOREKA GERVASIOren lanetik (1991) datoz.

68. A. SIMÓN TARRÉS (1992, 31) eta J. AMELANG (1986, 76-80).

zabaltzeko zalapartarien aldarrikapena gaitzetsi zuen eta. Egia esan, aipatutako idazkiaren egileak ez omen zuen berdintasun juridikoa ere guztiz ontzat ematen, berak eskainitako bertsioaren arabera behin eta berriz bandoen garaiko leinuen berezko nagusitasuna ondorioztatzen delako. Bere iritziz, foruzaletasunaren zilegitasuna eguneratzea azken hauei zegokien. Ikuspuntu honetatik, foru sistemak araututako *statu quo* delakoa eraldatzeko asmoa zalapartariei baino aurkariei leporatu behar zitzairen, Gaztelako eredu kulturalaren eraginez edo⁶⁹.

Matxinoen eskakizunak aurkezteko abagunea, edukia edota onuradunak erreparatzea komeni da, nik uste. Eskakizun desberdinak erreboltariet euren nagusitasuna sentitu zuten uneetan gauzatu zirenez gero, aldarrikapen guzti-guztiak idatziz jartzeko beharrik ez omen zuten aurreikusi, agintea euren eskuetan zegoen eta. Horrexegatik izkiriaturako eskakizunei berehalakotasunezko kutsua darie, mugimenduaren benetako izaerarekin bat ez datorrena⁷⁰. Sakoneko motibazioak konprenitzeko, beraz, aginpidearen jardunbidea aztertu beharra dago Bizkaiko erakundeek, hala edo nola, matxinoen kontrolpean iraun zuten bitartean. Aldundiari zegokionez, foruzaletasunaren defentsa sutsua, alde batetik, eta Hiribilduei zorrak ordaintzeko premia biziberritzearen bidez nekazal eremu eta Hiribilduen arteko erlazioen berrikuspina, bestetik, nabarmendu ziren. Bilboko erakundeetan berriz, aurreko urteetako oligarkizatze prozesuaren kontrako erreakzioa izan zen.

Kargudunek gai guzti haietako batzuk menpeko taldeen aurrean idatziz aurkeztea ez omen zuten onuragarritzat hartu⁷¹. Aldundiko erabakiak hartu eta agintea banatzeko talde zuzentzaileak erabilitako prozedurak ez zizkieten herri xumeari zehaztu behar, honek Gobernuarekin zerikusi gutxi zeukan eta. Gainera, Aldundiko zatiketa ere ez zuten ezagutarazi nahi, talde zuzentzailearen barne zatiketa plazara ez zedin. Horrexegatik Jaurerriko antolakuntzari buruzko tira-birak ezkutatu ziren: menpeko taldeek traidore erregezaleak baino ez zituzten ikusi behar. Jakina, halakoak baziren, baina Aldundiko erreboltarien aurkari bakarrak ez omen ziren⁷².

69. Abitu militarrek jasotzea, Gaztelako goi mailako senideekin lotzea, bertako erakundeetan garrantzi handiko karguak betetzea edota gaztelera erabiltzea, besteak beste, jarrera horren adibideak dira.

70. Erreboltan zehar gutxitan ageri arren, batzutan jatorri zaharreko arazo larrien ondoriozko eraldaketa handiak proposatu ziren. Adibidez, India Berrietarako zuzeneko merkataritzaren eskakizuna –azkenik idatzi ez zena. Bestetan, berriz, aurreko urteetan etengabe azaleratutako hainbat exijentzia izan ziren: Jaurerriko presoak bertatik ateratzeko debekuaren aldarrikapena, esate baterako. Hau ere ez zen garaiko eskabideetan islatu. Ik. E.J. LABAYRU (1901, V, 202).

71. Ezta Gaztelako Kontseiluaren aurrean ere ez. Arrazoi desberdinak zirela medio, puntu honetan erreboltariak eta *Relación* delakoaren idazlea bat zetozen. Horrexegatik bertsio desberdin guztiek mugimenduaren ikuspegi desitxuratuak eskaini zituzten.

72. 1633.eko Otsaileko Batzar Nagusietan aurkeztutako Korrejidorearen Entzutegia hiru Hiribildu nagusienetan txandakatzeko eskakizunak ia ez zuen talde zuzentzailearen gatazka adierazi, Hiribildu haien inguruko biztanleriaren elkarren kontrako norberekeriaren ondorioztat hartu omen zutelako. Gainera, herri xumearen aurrean erantzukizuna Korrejidoreari omen zegokion, elkarte osoaren onura baino bere interes partikularra hobesteagatik. Izan ere, aurrekariak baziren: Villabeta Montoya eta Diego de Soto Korrejidoreek Erregearen ebazpenak betetzeari muzin egin zioten Bilbon finkatzea erosoagoa zela argudiatuz. MAHN, DK, 28359 ps, 1. znbk.

Aurrekoak ez bezala, Bilboko erakundeetako kontraesanak zabaltzeko oztoporik ez zegoen. Alde batetik, arazo hauek ez zituzten talde zuzentzailearen barne tira-biratzat hartzen, aurreko urteetan erakunde haietan guztien ezaguna izandako oligarkizatze prozesuaren ondorioztat baizik⁷³. Eta, bestetik, halako azpijokoak zabalduz gero, kalteak Bilboko merkatariak izango ziren, eta ez hiritartutako nekazal jauntxoak.

5. ESTRATEGIAK ETA JARDUNBIDEAK

Aipatutako baldintzapen guztiak bat ez etortzekotan, jardunbideak bestelakoak izango ziren. 1631 eta 1632.eko Irailean izandako Batzar Nagusietan herri eskakizun batzuk plazaratu ziren. *Relación* delako idazkiaren egileak bilera haietako gehiegikeriak buruzagi zalapartari batzuk bultzatu zituztela adierazi zuen, aldeko iritzia eragiteko asmoz. Baliteke. Baina, era berean, probokatzaile batzuk jendaurrean zabalduz gero, iruzurraren eraginezko asaldura ez ezik, hainbat bizilagunei ez asetako eskariak legaltasunetik –hasiera batetan, behintzat– bideratzeko ahalegina ere izan zitekeen. Aurreko asanbladetan partaide batzuen irizpideak, eskuarki giza talde osoenak alegia, isilarazteko azpijokoak erabili zirenez gero, baztertutakoek bilera zatatsua behar zituzten euren eskakizunak plazaratu ahal izateko. Halakoetan, bertaratutakoek, nahitaezko aurretiko izapidea zen ahalmenen aurkezpena –zentsura hutsa eta batzarkideak menperatzeko tresna zena⁷⁴– bertan behera utzi ondoren, euren irizpideak askatasun osoz eta euskaraz aditzera eman zituzten. Aholku horiek ezezagunak ditugu, logikoa denez. Idazmena menperatzeko tresna zela kontutan hartuta, Aldundiak hala edo nolako jukutria erabili omen zuen gustuko ez zuen edozein irizpide aktetan ez barneratzeko⁷⁵.

Jakina, aurrekoak ez du esan nahi, halako baldintzetan, norbere interes partikularrak nagusitzeko abagune paregabeaz jabetu zirenak egon ez zirenik: Gobernu Unibertsaleko hauteskundeetan izandako irregulartasunak ez ziren lehen aldiz gertatzen. Edozelan ere, Aldundi hark aurrekoekin zerikusirik gabeko neurriak hartu zituen.

1632.eko Urriaren mugimenduko buruzagiek ez zuten menpeko talde bilbotarren bortizkeria eragotzi, traidoreen aurkako erakustalditzat hartzeagatik. Hasiera batetan Bilboko goi mailako taldeek ezustekoari aurre egiten ez zuten jakin. Hiribilduko krisialdia zela medio, talde zuzentzailea aspaldidanik asalduraren beldu-

73. Aurrez izan nuen aztergai: M. ZABALA MONTOYA (2003 b).

74. Gaztelera ezagutzearen betebeharrak Korrejidoreari ezohizko aginpidea eskaintzen zion, herri xumearen ordezkari gehienak kanporatzeko aukera zuen eta.

75. Eskabide haietako edukia zehaztea ez da erraza. Echávarri Lizentziatuak bildutako kontraforuen zerrenda edota *el celosso de su patria* goitizenez sinatutako idazlantxoetan agertutakoak horren adierazpideak izan zitezkeen, nonbait. Cf. E.J. LABAYRU (1901, V, 200-203). Idazki hauek altxamendua hasi aurretik mugimenduko buruzagien lana izan zirela baztertzeko hipotesia da, 1633.ean horiek eskuratu ahal izateko gaitasun gaitasun guztiak erreparatu gero.

rrez egon zitekeen, baina halako tankera eta iraupeneko ia izango zenik ez zuen inola ere aurreikusten. Agian zalapartariak ere ez zuten halakorik espero.

Testuinguru hartan, Aldundiak argudio forala bereganatu nahi izan zuen herri xumeak foruzaletasunaren defendatzailetzat har zezan. Horretarako azken boladana hala jokatzeko argudioak eskaini zizkion Koroarekiko harremanak eten egin eta ordaindu gabeko kontribuzioak bertan behera utzi zituen.

Gobernuak abagune bikoitzari eutsi zion. Alde batetik, merkatarien ezintasunagatik, menpeko talde bilbotarrek ezarritako ordena deuseztatu zutela jakinarazi zion Koroari. Eta bestetik, herri xumearen aurrean, berriz, Aldundiak foruzaletasunaren defendatzaile zintzo gisa aurkeztu nahi izan zuen bere burua. Aldeko une hartan helburuak eskuragarriak zirelakoan zegoen. Dena dela, erakutsitako jokabide desafiatzaile hura arriskutsua zen oso.

Jaurerriaren erresistentzia aktibo hau nabarmentzekoa izan zen. Nahiz eta beste matxinadetan izandako bezainbeste bortizkeri –zakurapen, erailketa, etab.– ez izan, gainerakoetan baino iraupen luzeagoak orijinaltasuna ematen dio honi. 1632.eko Urritik 1634.eko Maiatzera arte Gobernuak kanpoko erakundeei desobeditu zien tinkotasunez⁷⁶. Koroak estualdi hura jasanezinezkotzat jo zuen, berehalako eta balizko ondorioengatik. Bestela esanda: Erregearen agintaritza errefusatzea onartezinezkoa zen eta, gainera, inolako aginte faltan Hispaniako Erregetzaren etsairen bat, batik bat frantziarra, abaguneaz balia zitekeen penintsulako batasun ezegonkorra zatikatzeko asmoz. Horrexegatik matxinada benetako iraultzat hartu zuten Madrilan.

Edozelan ere, Gaztelako Kontseiluak etorkizunean galdutakoa berreskuratzen lagunduko zion jarrera azkarra hartu zuen. Kataluniako ereduarekin konparatuz gero⁷⁷, antzeman daitekeen desberdintasuna zera da: Gaztelako erakundeetako goi mailako karguetan bizkaitarren partaidetza handia, ebaztean erabakigarria izango zena⁷⁸. Berriak jasotzean, hasierako zuhurtasuna, talde zuzentzailearen menpetasunezko loturei eustea edota ordena berrezartzeko eginkizunetan Idiáquez⁷⁹ bezalako bizkaitarrik izendatzea hala adierazten dute, nik uste.

1632.eko amaieran Gobernuak aldeko aukera zuen bere helburuak nagusitu ahal izateko, baina, denboraren poderioz, abagune hori bertan behera gelditu zen. Madrilera bidalitako lehen ordezkariak porrot egin zuen⁸⁰. Erabateko porro-

76. J.C. SCOTTEK (1997, 14) aztertu zuen iraupen luzeko erresistentzia nekazal inguruetan.

77. Kataluniako erakundeetan Gaztelako kargudunen kopuru handiarekin batere ados ez zeuden kataluniarrak, eurek Gaztelako erakundeetan sartzerik ez zuten bitartean. J.H. ELLIOTT (1977, 69).

78. Zoritxarez, ideia hau egiaztapenik gabeko hipotesia besterik ez da.

79. Bilboko Alkatetza betetzeko aukeratzeari Hiribilduko merkatari eta jauntxoaren artean desegindako aliantza berresteko jokabidea izan zen, nonbait.

80. Cf. R. BARAHONA ARÉVALO (1970, 91-114).

ta, lehen negoziaketetan Gaztelako Kontseiluak Jaurerriaren obediencia lortzerik izan ez zuen bitartean, zatitutako Aldundiak ere ez zituelako helburuak erdietsi eta jasangaitza izango zen estualdia luzatu zuelako. Gainera, aurreko ezadostasunak areagotuko zituzten Batzar Nagusiak biltzeko deialdia egin zuen.

Bilera hartan azaleratutako Gobernuaren zatiketak eta –Madrilgo ikuspegitik– muturreko taldeen ustezko berrindarpenak estrategiak aldatzera bultzatzea zezaketen. Gaztelako Kontseiluak jokabide gogorrari heldu zion, Jaurerriko herri xumea itoazaziko zuen blokeo ekonomikoa abian jartzen⁸¹. Zoritxarrez, Gaztelako Kontseiluak halako jardunbideak zalapartariak muturreneko irizpideetara bideratu baino euren batasuna hautsiko zuela sinesteko gutxienezko oinarririk ba ote zuen ez dakit. Egia esan, halako hartan segurtasun gehiegi zuenik pentsatzeko arrazoirik ez dago, geroago Portugal eta Kataluniako mugimenduetan erakutsitako trakeskeriak kontutan hartuta. Hala ere, blokeoaren arrakastaren lehen adierazpideak berehala agertu ziren, Ciudad Real eta Ugarte Koroaren aurrean azaldu bezain laster.

Halako hartan, Gobernuak aliantza berriak bilatu behar izan zituen. Zer esanik ez: Jaurerrikan kanpo mugimendua zabaltzea erreboltairen helburuak –batzuk, behintzat– lortzen laguntzeko paregabeko estrategia zen. Dena dela, aurreko porroten ostean, menpeko taldeek ezer jakin gabeko neurria izateaz gain⁸², etsipenak bultzatu zuen.

Handik aurrera Gaztelako Kontseiluak hasierako ordena berreskuratu ahal izateko itxaron besterik ez zuela egin behar ondo zekien. Ez zuen amaiera aurreratu nahi izan, herri erresistentzia ahalik eta ahulen gelditu arte. Matxinadako buruzagien ihesaren arriskua baino azkeneko ekintzaren arrakastaren bermea hobetsi omen zuen.

6. HEDAPENA ETA ANTOLAKUNTZA

Erreboltairen hedapenari dagokionez, ibilbide batzuk desberdin daitezke⁸³. Hasiera batetan, oligarkiaren aurkako argudioak eraginkorrak izan ziren kostaldea asaldatzeko. Lekeitioko kasua agerikoa da, baina orain arte ezagututakoak baino liskar gehiago izandako Bermeon ere antzeko zerbait gertatu zela susma daiteke. Portuetan lekutzeak kofradiei lotutako elkartasuna erraztu omen zuen,

81. Estrategia hau, Barrionuevo Ikuskatzaile kaltetutakoaren eskaria izanda ere, Gaztela eta Bizkaiaren arteko desberdintasunik ekiditeko, Erresumako araudia eraldatzea proposatu zutenen aldeko lehenbiziko neurria zen, hala edo nola. MAHN, DK, 12479 ps.

82. 1633.eko Batzar Nagusietan salatutako esportazio bizkaitarrek Elgoibarren, ustez legez kanpo, ordaindu beharreko eskubideen gaia ez omen zuten geroagoko negoziaketetan jorratu.

83. Jakina, bide hauetatik aparte, herriz herri mugimendua zabaltzeko bestelakoak ere baziren: auzoko batzarrak, tokian tokiko elkarteak, komunikabideak edota zurrumurrutako erdiguneak ziren tabernak, besteak beste.

ustez erresistentziaren eragilea izateagatik –Veléndizen kontrako salaketek zioten bezala⁸⁴. Edozelan ere, ez ziren amorru bizian zeuden toki bakarrak izan⁸⁵.

Gipuzkoarekiko aliantza hasiera-hasieratik bilatu zuten eta, behin eta berriz ahalegin guztiek huts egin arren, ez zuten amaiera arte bertan behera utzi. Bizkaian ez bezala, Gipuzkoan ez omen zen mugimendua errotu⁸⁶. Probintziara igorritako ordezkapenaren benetako motibazioak zeintzuk ziren seguru ez dakit, baina aldi berean erreboltarako deia egiten zuten paskinak Donostian agertzeak zalapartariak handik lortu nahi zuten etekina adierazten du. Bertan erabilitako prozedura Bizkaikoaren antzekoa izan zen: zergen aurkako argudioek eta foruzaletasunaren defentsak Koroarekiko harremani kolpe erabakigarria erakarri nahian. Dena dela, Gipuzkoako hiri eta nekazal eremuen artean oso bestelako *statu quo* delakoa zegoen erakunde mailan.

Partaideen inplikazioa matxinadan zehar mailakatu zen. Hasiera batetan Aldundian esku hartzeak oso arriskutsurik ez bazuen ematen, Urriko gertakizunek eta, batez ere, 1633.eko Otsaileko Batzar Nagusiek egoera erabat eraldatu zuten. Izan ere, geroago Gobernuari Jaurerriko hondamenaren erantzukizunik nagusia leporatu zioten.

Esanak esan, talde zuzentzaileak erreboltaren aldeko sustapena neurtu zuen. Altxamenduan izandako gehiegikerien aurrean isiltzea eta desobedientzia irmoaren bidea hartu zuen Gobernuari laguntza zuzena eskaintzea oso bi jarrera desberdinak ziren. 1633.eko Otsaileko Batzar Nagusietan, erresistentzia gailendu zela, goi mailako kide batzuk ez zuten gehiegi inplikatu nahi izan. Izan ere, Sindiko izateko hautagai batzuk proposatutako karguari uko egin zioten. Onarpenak mugimenduaren zuzendaritzan esku hartzeak zekarren, halako hura usurpazio hutsa zen eta⁸⁷. Hala ere, une hartan erreboltariak beste inoiz ez izandako laguntzarik zabalena zeukaten, herri xumea eta oligarkia bat etorri zirelako.

Matxinadan berezko jardunbideak eta prestakuntza handikoak tartekatu ziren, batzuk eta besteak sarritan desberdintzen ez zirelarik. Dena dela, azkenak nabarmendu behar dira⁸⁸, nik uste, orain arte nagusizat hartutako inprobisazio-

84. Izan ere, aipatutako Batzar Nagusietan Bermeoko jostun, zapatagile eta beste ofizial batzuekin batera berrogeita zortzi marinel ere azaldu ziren, asanbladan bertako hogeita lau ontzieta-lagun bina joatea adostu ondoren. MAHN, DK, 43254 ps.

85. Gertakizun haietan Bermeoko marinelak baino ez zutela parte hartu zalantzetan jar dezakegu, Martín de Escoiquizen aitortzaren arabera: “la verdad es que fue engaño el decir que los dichos marineros trataban de derocar las casas del dicho Doctor Mendiola, porque nunca tuvieron tal intención, sino es que alguna jente de Durango y otras partes.” MAHN, DK, 43254 ps.

86. Gipuzkoaren kasurako, S. TRUCHUELO GARCÍA (2004: 183-204).

87. Mendiolak ez zuen inoiz bere dimisiorik aurkeztu. Gainera, Batzar Nagusietara bertaratu ez izanak ez dirudi kargutik kentzeko zentzuzko argudioa zenik, azken batez Batzar Nagusiak bere ekimenez deitu ziren eta bertan egon ezin izateko arrazoiak zeintzuk izan ziren badakizkigu.

88. 1633.eko Otsaileko Batzar Nagusietako desobedientziaren erantzule izatea, oso larritasun handiko delitutzat jotzen zena, Veléndiz Lizentziatuari leporatu zioten behin eta berriz bere kontrako auzian. MAHN, DK, 43254 ps.

aren gaintetik. Izan ere, Aldundiak poz handiz hartu zuen 1632.eko amaierako Bilboko bortizkeria, mehatxatutakoak laguntza eske apal-apalik noiz azalduko zain. Ez zen, beraz, liskar haietan Gobernuaren zuzeneko partaidetzarik izan, etekinik ateratzeko asmoa zuen pasibotasuna baizik. Bestalde, Bilbon Irazagorriak sufrututako jazarpena kostaldeko biztanleria asaldatzeko jokabidea izan zitekeen, Nieto de Yarzaren auziaren parekotasuna kontutan hartzen badugu. Era berean, Moralesen aurka Veléndizek eta Aulestiak burututako desakatuan konspirazioa salatu zen⁸⁹. Agian ez zen adibide bakarra izan⁹⁰.

Matxinoek bortizkeria nola erabili zuten aztertzeak ondorio berdinetara narama⁹¹. Erreboltan zehar oso biktima kopuru txikia egoteak edota Fernández del Camporen etxebizitzako zakurapenean Inkisizioaren ikurrak errespetatzeak aurrekoa berresten dute, nonbait. Baina garaileek ere bortizkeriaren erabilpena neurtu zuten erabateko asmo eredu-garriaz. Ciudad Realek zalapartariak amaierako zigorrak zuzenean ikustea hobetsi zuen. Kostaldean kanpoko tropak zain zeudela aditzera eman zuten bertsioek sinistuz gero, zigorra burutzeko arrotzak –amorrua berpiztu zezaketena– baino bertakoak aukeratu zirela ondorioztatu behar dugu.

Sarritan protestako ekimenei jai edo erritua zeriela ohartarazi dute⁹², baina dagokigunean halako interpretazioa guztiz zehatzik ez da, nik uste. Izan ere, *charivari* delako adierazpideen helburua araudietako hausleak berriro elkartean berreratzea omen zen, erreboltetako erasoek alderantzizkoa –bazterketa, alegia– bilatzen zuten bitartean, gehiegikeri haiek errepika ez zitezen⁹³.

7. IDEOLOGIA

Mugimenduaren ideologia ez da ezereztatu behar. Altxamendua lehertu baino lehenago Jaurerriko buruzagiek erresistentziarako deia egin zuten. Bertako Aholkulariak, Echávarri Lizentziatuak, foruzaletasuna bortxatze-kotan armen erabilpena onetsi zuen arrazoibide batetan⁹⁴, matxinada hasi aurretik Bizkaitik zabaldu zena.

Errebolitariak informazio iturri erabilgarri guztiak lortzen ahalegindu ziren jardunbideak justifikatzeko. Bermeoko artxiboan zenbait agiri bilatu zuten eta beste

89. Garai hartan halako jokabideak arruntak omen ziren. Cf. Y.M^a BERCÉ ETA E. FANASO GUARINI (Dir.) (1996).

90. Gaur egun bukaerako zigorraren bezperan Ciudad Realgo Dukea erailtzeko ustezko ahaleginez ia ez dakigu ezer.

91. Balizko errepresioaren aurreikuspenaz ere beste horrenbeste esan dezakegu. Matxinadaren hasieran bertan, erailketa izan bezain laster bilbotarrek idazkia sinatu zuten –borondatez egin zuten ala ez alde batera utzita– norbere errua aitortuz. Halako neurriak Gaztelan ere izan zirela egiaztatu zuen P.L. LORENZO CADARSOK (1996, 127-128).

92. J. ETA J.C. ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ (1988, 343-348).

93. W. BEIK (1997, 254-255).

94. T. GUIARD (1906, II, 80) eta E.J. LABAYRU (1901, V, 200-203).

tokitan ere hainbat idazlan eskuratzen saiatu ziren⁹⁵. Gainera, argudio eta lelo berberak erabili ziren altxamendua Gipuzkoatik zabaltzen ahalegintzeko. Parekotasun hau lurralde foraletan –edota hauetako batzutan gutxienez– eta dagokigun garaian balizko oinarri ideologiko berdinarean adierazpidea izan liteke⁹⁶.

Lagun eta aurkarien aurrean Aldundiaren exijentziak sustatzen saiatzeko baliozkoak izan zitezkeen agiri historiko multzotik aparte, beste dokumentu batzuk ere aipatzekoak dira. Gipuzkoako ordezkariak 1630.eko Konkordia eraman izanak Gobernuaren sakoneko helburuen berri ematen digu.

Paskin eta panfleto subertsiboek oso bestelako maila ideologikoa osatzen zuten. Bertan, menpeko taldeak erakarri nahian, altxamendurako dei egiteaz gain, Bizkaiko hondamenaren errudunen aurkako mehatxuak agertzen ziren, gehiengoak ulertzerik ez zuen azalpen konplexurik gabe. 1633.eko Martxoan kaleratutako idazki anonimoan erregezaleei errua leporatzea –ustez, Koroa eta Jaurerriaren elkarren aurkakotasunari amaiera ematen oztopatzen zuten, Erregeak berak ere konponbidea nahi zuen eta– harrigarria da oso⁹⁷.

Kontrairaultzaileek ere idazmena erabili zuten helburu ideologikoz. Ciudad Realen hurbileko norbaitek *Relación* delako idazkia sortu zuen⁹⁸, bertsio ofizialaren antzeko istorioa izan zena, –bitxia ematen badu ere– 1634.eko Maiatzean benetako garaileak izandakoen esanetara ez egokitu arren⁹⁹.

Matxinoen aldarrikapenak herri partaidetza handiko asanblada eta bileretan gauzatzen ohi ziren, baina idaztea edota besteen aurrean aurkeztea eskribau edota elizgizonei baino ez zegokien. Batzuetan eskakizunak alfabetatuek lehenago zabaldutakoekin bat zetozen. Baina hortik, besterik gabe, buruzagiek menpeko taldeak manipulatu zituztela ondorioztatzea arriskutsua da oso, eskari gehienak herri xumearen interesetara egokitzeagatik eta aipatutako gehiengoa analfabetoa izatearren.

95. BFA, UA, Bilbo, AA, 310.1.7. Bertan *çelosso de su patria* delako goitizenez sinatutako *Discurso sobre los Fueros de Vizcaya* izenburuko idazlana dago.

96. Orain arte landutako parekotasunak garai beranduagokoak izan dira, aztergai dudan honetarako, berriz, lan bakarra hauxe da: G. MONREAL CÍA (1980, 971-1004).

97. San Anton elizan agertutako idazkiak, bestalde, mugimenduaren aldeko goi mailako kideak zirela adierazten zuen, baina datu horretatik ondorio gutxi atera daiteke bestelako xehetasunik gabe.

98. Idazlearen nortasuna gaur egun ere ez dakigula uste dut. Idazkia luzaro Aparicio de Uriberi leporatu zitoten (T. GUIARD, 1906, II, 91), baina hori guztiz ezinezkoa da Idazkari hori 1634.eko Urriarriak 20rako hilda zegoelako (cf. BFA, BA, Villarías, 40. L, 13. Erreg., 40. znbk.). Geroago R. BARAHONA ARÉVALOK (1970, 27) Juan de Zubiaur Idazkariak izkiriatu zuela proposatu zuen, baina hipotesi hori ere okerrekoa da, *Relación* delakoaren kopia bat den MLN, Es, 7420 agirian 1632.eko Urriak 17ko Erregimentu Orokorreko aktaren transkripzioa ez desberdintzeagatik. Beraz, agiriaren izaera anonimoa mantendu beharra dago, zoritxarrez, egilearen maila soziala eta idazlanaren helburua argi eta garbi azaleratu arren.

99. Orain arteko ikerketetako mugapen eta desbiderapenak, neurri handi batez, agiri honengainako kritika faltari leporatu behar dizkiogu, nik uste.

Dena dela, zalapartarien eskabide batzuetako egileak nortzuk izan ziren gogoraraztea argigarria izan daiteke, nire iritziz. 1633.eko Otsaileko Batzar Nagusietan partaidetza handia izan zuten Arauco eskribaua edota Armona elizgizona, hala edo nola, Bilboko inguruneko ordezkariak ziren (izan ere, Araucok Bilboko Udal Idazkaritza bete zuen), baina –halako hartan– eremu zabalagoaren izenean, Bizkaia osoarenean alegia, aritu ziren. Buruzagi matxino batzuen irizpidearen kontra deitutako asanblada hartan Araucok eta Armonak izandako ekimena bertaratutako baserritarrek mugimenduaren aldeko jarrera har zezaten jardunbidea izan zen, nonbait.

Elizgizonek esku-hartze handia izan zuten aipatutako bilerara joateko deialdian. Bizkaiko gizartean pulpituetoako aholkuak oso eragingarriak ziren eta, gainera, nekazal eskualdeetako apaizek herri xumearekin bat egiten zuten, patronatu laikoaren hedapena handia zela medio. Asanblada izan baino lehenago, aldeko laguntza erakartzen ari zela, Armonari mesianismoa zeriola salatu zuten.

Erreboltariak ez ezik, etsaiek ere klero eta pulpituari heldu zieten. Gonzalo Chacónen predikuek edota zigorraren bezperan hierarkiaren presentzia Bilbon hala adierazten dute. Gainera, goi mailako elizgizonik Bilbon batzeak etekin politikoa lortzeko asmoa omen zuen, karguetako babesari esker Hiribilduko buruzagientzako garrantzi handiko informazioa jaso ahal izan zutelako.

Zalapartarien batasuna gorpuztu zuten eragileak ere landu beharra dago, hauen bidez partaide desberdinen arteko homogeneotasuna, tinkotasuna edota arrakastaren aurreikuspenak aztertu ahal izango dira eta. Hona hemen batzuk:

1. Foruzaletasuna: mugimenduaren berebiziko euskarria izan zen. Hala ere, guztiek, matxinoek eta arerioek, Foruen alde jokatzeko zutela ziurtatzen zuten. Batzuetan, kontrako interpretazioak aurkeztu zituzten (*Relación* delako idazkiaren egilearena, esaterako), baina bestetan ez horrenbeste. Echávarri Lizentziatuak erresistentzia armatua onetsi zuen kontraforuei aurre egiteko. Edozelan ere, Aldundiak oinarri teoriko hori bereganatu eta aurrerantzago jo zuen Foruaren aurkako neurriak bertan behera gelditu bitartean Madrilekiko harremanik eteten.

Bestalde, menpeko taldeek asanbladetan parte hartu eta erabakitzeko esku-bidea biziberritu zen, erakunde nagusienek lehenago izandako oligarkizatzeko prozesuaren aurreko erreakzio modura. Hala ere, puntu honetan oso irizpide desberdinak ziren. Idiáquezen idazlearen esanetan, Jaurerriko zuzendaritza oligarkiari –hau da, bandoetako buruzagiei– zegokion. Gobernua ere bat zetorren, hala edo nola, matxinadaren etsaiek defendatzen zuten ideia honekin. Izan ere, Aldundiaren agintaldian ez ziren Batzar Nagusiak bildu –Ahdun Nagusien borondateen kontra deitutako 1633.eko Otsailekoak izan ezik– eta bai, berriz, Bilboko Udal, Hiribildu honen Kapitulu, burdinoletako jabe edota Gipuzkoako Aldundiarekiko bestelako batzarrak. Datu hau adierazgarria da oso, nik uste.

2. Kontsumitzailearen defentsa: Bilboko mutina ulertzeko oinarritzko elementua da. Hala ere, Kontrabandoko Ikuskatzailea Hiribildutik irten zedin oztopatu ez zuen Aldundiaren kontra eragingo zuen, Erregearen blokeoa indarrean sartu bezain laster horniketa bermatzeko ezintasuna agerian gelditu zelako.

3. Ordena iraunaraztea: gai honen inguruan irizpide desberdinak zeuden. Gobernua sustatzen zuten nekazal handikien ustez, Konkordia sinatu aurreko *statu quo* delakora itzultzea zen, bestelako zehetasunik gabe. Beste ikuspuntu desberdinetik, Ciudad Real zertxobait argigarriagoa zen, leinuen nagusitasunean oinarritutako gizarte antolakuntza defendatzen zuelako. Edozelan ere, Idiáquezek, bere portaerari esker, leinu zaharrak baino merkatari bilbotarrak indarberritu zituen.

Gutziz kontrakoa zen menpeko talde bilbotarren ustezko iritziz, ekonomi mailako berdintasuna zilegi omen zen¹⁰⁰, baina aldarrikapenak –egotekotan– indarra galdu zuen matxinada aurreratu ahala. Krisialdi ekonomikoak, espekulazioak eta zerga berriek, batik bat, giza talde apalenak kaltetu zituztela begien bistan da. Baina herri xumeak ez zituen protestak itsutasunez burutu eta aurreko gehiegikerietan partaidetza handia izan zutenen aurkako erasoak antolatu zituen. Era berean, idatzizko eskakizunak ez omen ziren ordena sozio-ekonomikoaren kontrako erabateko iraultza (kide alfabetatuen bidez egokituta izan ziren ala ez alde batera utzita).

Nekazal jauntxo eta talde bilbotar desberdinen arteko elementu bateragarriarik nagusiena merkatal jatorria zuen goranzko giza taldearenganako aurkaritza bizia izan zen, nonbait. Eta hortxe kontraesan nagusienetako bat da. Ciudad Realgo Dukearen jarrera honen lekuko dugu, leinu zaharren buruzagia izanik, mailaz igo berrien defendatzaile bihurtu zen eta. Dena dela, aipatutako jokabidea itxurazko kontradikzioa besterik ez zen izan, batzuk eta besteak Erregearen mesedeak –abitu militarrek, administrazioko karguak, etab.– lortu nahian zeudelako.

8. EMAITZAK

Hasiera-hasieratik, matxinadak 1630.eko Konkordiak eragindako desoreka agerian utzi zuen. Antzeko akordioa lortzeko asmoz izan ziren aurrekarietako porrotaz jabetzekotan, desoreka hura ulergarria zen. Hainbat nekazal handikiren jarrera zalantzagarrria erreboltan zehar izandako ez-idatzizko negoziaketari esker alda zitekeen. Bertan etorkizunari begira burututako ustezko aginpide-banaketa berri batek (erakundeetako karguak, ezkontza-politika, etab. berrikusi zituenak)¹⁰¹ jauntxo haiek zalapartarien aurkarien taldera erakarri zituen. Izan ere, erreboltariak behin behineko nagusitasuna eskuratzean, leinuen arteko lokarri zaharrak biziberritu ziren, geroago mugimendua hondoratzen lagundu zutelarik. Bando zaharren berreskurapenak jatorriarengandik gero eta urrunago zegoen gizarte-antolakuntza errotzera eramanean, partaideek zekiten bezala. Hala ere, *Relación* delako idazkian ondo baino hobeto azaleratzen den paradoxa hau talde

100. Jakina, Bilboko erreboltarien aldarrikapenaren lekukotasuna *Relación* delako idazkiaren egilearengandik dator.

101. Hipotesi honi buruzko bestelako zehetasunik eskaintzea zaila da oso, zehaztugabeko taldea izateagatik –nik dakidanez, euren izen/abizenak ez dira orain arte inon ageri.

zuzentzailearen gehiengoak merkataria integratzeko prozedura onuragarritzat –edota, altxamendua zela medio, gutxienez, beharrezkotzat– jotzeagatik onartu zuten. Alde batetik, ohiko jauntxoek estualdiko une hartan¹⁰² errentak handitze-ko aukera zuten. Eta, bestetik, goranzko merkataria nagusienek arrakastaren legezko onespena lortzeaz gain, errentadun bilakatzeko aukera konponbide erra-za izan zuten, gerra garaiko merkataritzaren arrisku handiei aurre egiteko¹⁰³.

Menpeko taldeak matxinadaren hondamenaren biktimarik nagusienak izan ziren. Talde zuzentzaileak ez bezala, herri xumeak erabateko estualdi mingotsa pairatu behar izan zuen errebolta-aren azken hilabeteetan, etengabeko desertzioak –garrantzi handiko buruzagi batzuetakoak barne– izan zituelarik. Azkenik, etsipe-naz jota, aldarrikapenak lortzeko edota ordena eraldatzeko ezintasunaz jabetu ziren. Baina gertakizun guzti haien ondorioz, foruzaletasunak ere kalte handiak jasan zituen. Izan ere, ondorengo urteetan Jaurreriak Madrilen izango zuen era-ginkortasuna ahuldu zen¹⁰⁴, nahiz eta handiki bizkaitar batzuk etekin partikular handiak lortu, aurrez izandako portaerari esker.

Noizbait Gaztelako Kontseiluak zigorrak ezartzen eskuzabaltasunaz jokatu zuela esan dute¹⁰⁵. Dagokigunean, delitu-erretako larritasuna kontutan hartuta, halakorik ez zela izan uste dut, errepresioa giza talde galtzaile desberdinen arte-an aukerazkoa izan arren¹⁰⁶. Gobernuaren ordezkari bakarrak Axorabide eta Aulestia izan ziren, Iruixa Ahaldu Nagusia aske gelditu zen bitartean –Bizkaiko kargudunik gorena zigortzea gehiegizkotzat jo zitekeen muga ez gainditzeagatik. Menpeko talde-erretako zigortuak Vizcayganas anaiak eta Charta jostuna ditugu.

Edozelan ere, geroago batzuk eta besteek bilakabide desberdinak izan zituz-ten, erretutako balizko banaketa deuseztatuz. Herri xumea ez zen berriro erakun-de publikoetan azalduko eta gai honen gaineko protestak motelduko ziren luzaro. Errebolta-aren garaian zintzotasun zalantzarria erakutsitako jauntxo batzuk, berriz, erakunde publikoetara itzuliko ziren handik gutxira. Matxinadaren arriskua behin betiko uxatu ondoren handikien erantzukizunak bertan behera gelditu ziren talde zuzentzailearen zatiketa ezkututzen saiatzeko asmoz.

102. Gipuzkoaren kasurako, ik. I. MUGARTEGUI EGUÍA (1998, 465-491).

103. Diru kopuru handiak *juro* delako ezarpenetara bideratzen zirenez gero, jardunbide hura Koroari ere mesedegarri izan omen zitzaion.

104. Ondorengo urteetan, zerga-eskakizunak, zein Gaztelan finkatutako bizkaitarrei zegokien jurisdikzioa ez betetzegatik izandako keak biderkatzea, besteak beste, horren lekuko ditugu. MAHN, DK, 7167 ps, 59. znbk.; atal bereko 7171 ps, 4. znbk.; 7173 ps, 56 znbk. eta 7175 ps, 92. znbk.

105. P.L. LORENZO CADARSO (1996, 171).

106. Valentziako Germanietan antzeko zerbait izan omen zen. Cf. P. PÉREZ GARCÍA (1996, 141-198).

9. INPRIMATUTAKO ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

- AMELANG, J. *La formación de una clase dirigente: Barcelona 1490-1714*. Barcelona: Ariel, 1986.
- BARAHONA ARÉVALO, R. *Une révolte antifiscale au Pays Basque Espagnol au 17eme siècle* Paris: E.H.E.S.S. (argitaragabeko tesina), 1970.
- BEIK, W. *Urban protest in seventeenth-century France. The culture of retribution*. Cambridge: C.U.P., 1997.
- BERCÉ, M^a; FANASO GUARINI, E. (Dirs.). *Complots et Conjurations dans l'Europe Moderne*. Paris: École Française de Rome, 1996.
- COLAS LATORRE, G.; SALAS AUSENS, J.A. *Aragón en el siglo XVI: alteraciones sociales y conflictos políticos*. Zaragoza: Unibertsitatea, 1982.
- ELLIOTT, J.H. *La rebelión de los catalanes. Un estudio sobre la decadencia de España (1598-1640)*. Madril: Siglo XXI, 1977.
- ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. C.; ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. "Comportamientos populares durante las machinadas vascas: moral patibular y orden tradicional". In: *II. Euskal Mundu-Biltzarra. Euskal Herriaren Historiari buruzko biltzarra. III. Alea. Ekonomia, Gizartea eta Kultura Antzinako Erregimenean*. Donostia: Txertoa, 1988; 341-348 or.
- ERKOREKA GERVASIO, J. I. *Análisis histórico-institucional de las cofradías de mareantes del País Vasco*. Gasteiz: Eusko Jauraritzza, 1991.
- FERNÁNDEZ DE PINEDO, E. *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco (1100-1850)*. Madril: Siglo XXI, 1974.
- GELABERT, J.E. *Castilla convulsa (1631-1652)*. Madril: Marcial Pons, 2000.
- GIL ANDRÉS, C. *Protesta popular y orden social en La Rioja de fin de siglo, 1890-1905*. Logroño: Errioxako Gobernu, 1995.
- GÓMEZ RIVERO, R. *El Pase Foral en Guipuzcoa en el Siglo XVIII*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1982.
- GUEZALA, L. *Bizkaia por sus Fueros: la Zamakolada (1804)*. Bilbo: Bizkaiko Batzar Nagusiak, 2003.
- GUIARD, T. *Historia de la Noble Villa de Bilbao* Bilbao: L.G.E.V (1971.eko berrargitalpena), 1905/6.
- IÑURRITIGUI, J. M^a. *Monstruo indómito: rusticidad y fiereza de costumbres. Foralidad y conflicto social al final del Antiguo Régimen en Guipúzcoa*. Bilbo: E.H.U., 1996.
- LABAYRU, E. J. *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbo: L.G.E.V. (1971.eko berrargitalpena), 1897/1901.
- LARREA BEOVIDE, A. *El patronato de laicos en la Vizcaya del Antiguo Régimen*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea (doktoregoko tesia), 1993.
- LORENZO CADARSO, P. L. *Los conflictos populares en Castilla (Siglos XVI-XVII)*. Madril: Siglo XXI, 1996.
- MIEZA MIEG, R. M^a. "La machinada del Estanco de la Sal: una hipótesis de interpretación". In: *Emaroa* 6, 1991; 41-102 or.

- MONREAL CÍA, G. "Anotaciones sobre el pensamiento tradicional vasco en el Siglo XVI". In: *Anuario de Historia del Derecho Español* L, 1980; 971-1004 or.
- MUGARTEGUI EGUÍA, I. "Nobleza y terratenientes en la Castilla interior y en el País Vasco costero: soluciones a la crisis del siglo XVII" In: DÍAZ DE DURANA ORTIZ DE URBINA, J.R. (Ed.). *La Lucha de Bandos en el País Vasco: de los Parientes Mayores a la Hidalguía Universal. Guipúzcoa, de los bandos a la Provincia (siglos XIV-XVI)*. Gasteiz: E.H.U., 1998; 465-491 or.
- OTAZU Y LLANA, A. *El 'igualitarismo' vasco: mito y realidad*. Donostia: Txertoa, 1973.
- PÉREZ GARCÍA, P. "Conflicto y represión: la justicia penal ante la Alemania de Valencia (1519-1523)" In: *Estudis. Revista de Historia Moderna* 22, 1996; 141-198 or.
- PÉREZ LEDESMA, M. "Cuando lleguen los días de la cólera (Movimientos sociales, teoría e historia)". In: SÁNCHEZ NISTAL, J.M^a; ET ALII: *Problemas actuales de la Historia. Terceras Jornadas de Estudios Históricos*. Salamanca: Unibertsitatea, 1991; 141-187 or.
- PORRES MARIJUAN, R. "Discursos forales y fiscalidad real. Las Provincias Vascas ante el crecimiento de la sal de 1631". In: *Studia historica. Historia moderna* 29 (2007). 2007; 343-385 or.
- RIBECHINI, C. *De la Guerra de la Convención a la Zamacolada. Insumisión. Matxinada. Dispersión*. Donostia: Txertoa, 1996.
- SCOTT, J. C. "Formas cotidianas de rebelión campesina" In: *Historia Social* 28, 1997; 13-39 or.
- SIMÓN TARRÉS, A. "La revuelta catalana de 1640. Una interpretación" In: SIMÓN TARRÉS, A.; ET ALII: *1640: la Monarquía Hispánica en crisis*. Bartzelona: Crítica, 1992; 17-43 or.
- TRUCHUELO GARCÍA, S. *Gipuzkoa y el poder real en la Alta Edad Moderna*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia; 2004.
- ZABALA, F. "El centralismo borbónico y las crisis sociales del Siglo XVIII". In: *Historia del País Vasco. Siglo XVIII*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1985; 225-246 or.
- ZABALA MONTOYA, M. "1630 eta 1633 bitarteko Bilboko etxebizitzetako jabetzaren egitura". In: *Bidebarrieta* XII, 2003 a; 381-400 or.
- ZABALA MONTOYA, M. "Bilboko Erregimendua XVI. eta XVII. mendeen bitartean: bazterke-ta eta erresistentzia aurrez aurre". In: *Uztaro* 47, 2003 b; 41-54 or.
- ZAGORÍN, P. *Revueltas y revoluciones en la Edad Moderna*. Madril: Cátedra (bi liburuki), 1985/86.

10. LABURDURAK

AA: Aitzinako Atala

AJ: Atal Judiziala

BA: Bestelako Atala

BAHP: Bizkaiko Artxibo Historiko Probintziala

BE: Bizkaiko Entzutegia

BEAH: Bizkaiko Elizbarrutiko Artxibo Historikoa

BES: Bizkaiko Entzutegiko Sententziak

BFA: Bizkaiko Foru Artxiboa

DK: Deuseztaturiko Kontseiluak

Erreg.: Erregistro

Es: Eskuizkribuak

Esk: Eskribaua

GP: Gernikako Protokoloak

K: Kutxa

Korr.: Bizkaiko Korrejimendua

L: Liburu

MAHN: Madrilgo Artxibo Historiko Nazionala

MLN: Madrilgo Liburutegi Nazionala

NA: Notal Atala

PKA: Peñafloidako Kondeen Artxiboa

ps: Paper-sorta

UA: Udal Atala

VEKA: Valladolideko Errege Kantzelaritzako Artxiboa

znbk.: Zenbakia